



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 2a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, jokoari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena ([7. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, jokoari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, jokoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Jokoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Horren bidez, proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak Jokoari buruzko Foru Lege proiektua Parlamentuari igorri izana eta, aldi berean, joko-motetako bat, alegia, txanpon-makinak, arautzeko dekretu bat eman izana, zeinak Nafarroako ostalaritza-sistema guztian eragin handia izan baitu ustiapen ekonomikoaren ikuspegitik, egiazko aldrebeskeria bat da, Parlamentuaren irudiari eta eskumenei kalte egiten diena. Hori dela-eta, lege hau Gobernuari bihurtu behar zaio.

Bigarrenik, gai garrantzitsuenei eta, zehazki, foru administrazioak baimendu eta arautu beharreko jokoak zein diren erabakitzeari dagokion erregelamenduz ezarriko dela xedatzen du legeak, eta hori ere Parlamentuaren eskumenak zapaltzea da. Parlamentuari eztabaidarako aukera kendu nahi zaio; adibidez, Nafarroan kasinorik egon behar ote den ala ez den eztabaidatzekoa, eta bat bakarra izan behar ote den eztabaidatzekoa, eta Urdazubin edo beste nonbait egon behar duen eztabaidatzekoa.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. "Haren eskumenen arabera" kentzea.

Testua honela geldituko litzateke:

"1. Foru lege honen xedea da mota guztietako joko eta apustuak Nafarroako Foru Komunitatean arautzea. Haietatik aparte, zuzenean edo zeharka dirua, ondasunak edo ekonomikoki ebaluatzekoak diren eskubideak arriskatu edo eskualdatzen direneko jarduerak ere arautzen dira, ausazko edo ia ausazko prozesuen emaitzetan oinarritzen badira edo gertatzen ahal den edo ez zerbaiten iragarpean oinarritzen badira, edozein direlarik jokalariek parte hartu eta aukerak hautatzeko duten nahia adierazteko erabiltzen diren modu eta baliabideak eta edozein delarik haien gaitasun edo trebetasunak edo zori hutsak emaitzan duen eragina."

Zioak: Errepikapen bat da, jadanik zioen azalpenean aipatua baitago.

2. ZUZENKETA

ARALAR **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko (Xedea eta aplikazio esparrua) 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Denbora-pasa edo josteta hutseko joko edo apustuak foru lege honen esparrutik baztertzen dira, betebehar ekonomikorik sortzen ez dutenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arabera gizartean oihartzun gutxi dutenak edo

eginbehar ekonomikoei dagokienez garrantzi gutxikoak direnak.”

Zioak: Kendutako testu-zatiak interpretazio-akats bat eragin lezake, ohitura baita zenbait elkartek edo ostalaritza-entitatek museko edo beste edozein joko edo kiroleko txapelketak antolatzea, zeharka diru-irabaziak ekartzen dizkietean, bai eta, batzuetan, zuzenean ere.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari (printzipio orokorrak) beste letra bat, f), gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) Ludopatiaren prebentzioa eta kontrola.”

Zioak: Joko eta apustuen araubide publikoak ezin du ahaztu badagoela ludopatia den eritasun bat, eta arlo horretako lege-araubide guztiak aintzat hartu behar du gaitz hura amaiarazteko ahalegina.

4. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko (Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoa) 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den katalogoan honako joko hauek sartuko dira:

- a) Bingoa: haren mota guztiak.
- b) Joko-makinak erabiliz gauzatzen direnak.
- c) Kirol edo lehia jardueretan oinarrituriko apustuak.
- d) Loteriak eta txartel-jokoak.
- e) Zozketak, tonbolak eta zorizko konbinazioak.
- f) Berehalako loteria, “karraskatu eta irabazi” gisa ezaguna.
- g) Kasinoko jokoak: erruleta (amerikarra edo ingelesa), black jack eta abar.”

Zioak: Aurreko legeak zerrenda zehatz bat ezarrita dauka, katalogoa egitean baimendutako jokoak zein diren argi adierazten duena. Ez dago inolako arrazoirik katalogoa orain legean ez egin eta erregelamendu baterako uzteko.

5. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua (joko eta apustu debekatuak) aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan sarturik ez dauden joko eta apustuak... bahituko dira, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zehapez gain.”

Zioak: Jokoen arloko zehapenak hedatu behar dira debekatutako joko eta apustuera. Hortaz, hartu beharreko neurriak ezin ditu alde batera utzi bahiketa eta zehapena.

6. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua (Nafarroako Jokoaren Kontseilua) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago justifikatuta beste kontseilu bat eratzea, ez baitauka zereginik eta, gainera, administrazioaren ingurumarietako horrelako entitateen inflazioa dagoelako.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua testua honela geldituko litzateke:

“Nafarroako Gobernuak Nafarroako Jokoaren Kontseilua eratuko du, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan jokoaren eta apustuen arloko eskumena esleitua duen departamentuari atxikia. Jokoaren eta apustuen arloan aholku eman eta parte hartzeko organoa izanen da eta bertan parte hartuko dute lehentxeago aipatutako Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentuak, jokoaren eta apustuen arloan eskumena duten beste departamentu batzuek, Nafarroako ludopatia-elkarteen ordezkariak batek eta jokoaren eta apustuen arloan interesa duten enpresa erakunde, sindikatu eta gizarte erakunderik adierazgarrienek ere.”

Zioak: Nafarroako Jokoaren Kontseiluan Nafarroako ludopatia-elkarteek parte hartzea bermatzea.

8. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Idatz-zati bat, 10.1 bis, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“10.1 bis. Publizitate hori erkidego honetako hizkuntza errealitateari egokitu beharko zaio eta, beraz, hala gaztelaniaz nola euskaraz egin beharko da.”

Zioak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubi-deak bermatzea.

9. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua (Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jokoaren arloan diharduten enpresa edo entitateek foru administrazioarekin harremana izateko moduak beste arlo batzuetako bestelako enpresa eta entitateenaren antzekoa behar du izan, eta ez dago arrazoirik haiek jokoari buruzko foru lege batean arautzeko.

10. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 1. lerrokadan gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“1. Katalogaturik dauden joko eta apustuak antolatu eta ustiatzea, eta, orobat, jokatzeko eta apustuak egiteko lokal edo establezimenduak ireki eta erabiltzea, edo horretarako guneak erabiltzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakundeen esku edo joko enpresen esku egonen da bakar-bakarrik. Joko modalitate jakin batzuetan, hala ezarriz gero, pertsona fisiko edo juridikoek ere egiten ahalko dute, salbuespen gisa eta aldi baterako, baina horretarako, aurretik, kasuan-kasuan gaiaren arabera eskumena duen Foru Komunitateko organoaren administrazio baimena beharko dute.”

Zioak: Jarduteko eremua zehaztea.

11. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

13.1. artikulua. “Baimena lortu nahi dutenek formalki eskatu beharko dute, eskaerari erregelamenduz ezarrita dagoen dokumentazio guztia erantsiz. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatu beharra dagoenean izan ezik, baimena eman edo ukatzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Epe hori ebazpen espresik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, interesduna baimena administrazio-isiltasunez ukatu zaiola ulertzeko legitimatua egonen da, deusetan galarazi gabe organo eskudunak eman beharreko ebazpen espresa.”

Zioak: Administrazio-isiltasuna positibotzat arautzea, gure ustez, onuragarria eta beharrezkoa da gizarte-jardueraren esparru ugarian, baina, gure iritziz, jokoari dagokionez kontu handiz ibili behar da gai honetan, eta joko-jardueren gauzatze baketsu eta normalizaturako kalte gehiago ekar ditzake onurak baino. Aztergai duguna bezalako sektore dinamiko eta esku-hartze handiko batean, non izapideak hain ugariak diren, isiltasun positiboak mesede egin ahal lieke orotariko abenturazale eta amarruzaleei, enpresaburu egonkor eta arduratsuen kaltetan.

12. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluko 1. lerrokadan gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren testua honela geldituko litzateke:

“1. Baimena lortu nahi dutenek formalki eskatu beharko dute, eskaerari erregelamenduz ezarrita dagoen dokumentazio guztia erantsiz. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatu beharra dagoenean izan ezik, baimena eman edo ukatzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Epe hori ebazpen espresik eman eta jakinarazi gabe igarotzeak interesduna ez du legitimatuko administrazio-isiltasunez baimena eman zaiola ulertzeko, deusetan galarazi gabe organo eskudunak eman beharreko ebazpen berreslea.”

Zioak: Gai honetan, administrazio-isiltasuna ez da positibotzat ulertu behar, gure ustez.

13. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“a) Baimen-ematearen egunaren aurreko bost urteko epean, epai irmo baten bidez kondenatua izatea honelako delitu bat egiteagatik: faltsutasuna, jabetzaren aurkakoa edo ogasun publikoaren aurkakoa.”

Zioak: Heterogeneoa da letra honetan jasotako delitu-zerrenda, eta horietako batzuek ez daukate inolako zerikusirik lege honetan arauturiko zereginetarako gaikuntza lortzeko aukerarekin.

Delitu horiei dagokionez, kasuan kasuko epaiaren xedapen osagarrietan esaten denaren arabera jokatu beharko da.

14. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 23. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, bertatik “kasinoetan” hitza ezabatuz.

Zioak: 24. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

15. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 24. artikulua kentzea.

Zioak: Ez da egokitzat jotzen Nafarroan kasino-rik ezartzea. Izan ere, establezimendu horiek beharrezkoa dute inbertsio handi bat eta haietara jende ugari joatea, eta hori soil-soilik hiri handietan edo turismo-eskualdeetan dago justifikatuta. Errentagarritasun aski zalantzagarriko joko-modalitate berriak baimentzea ez litzateke izanzen etorkizunerako arazo-iturri besterik.

16. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikulua (bingo aretoak) aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Bingo aretoak bingo izeneko loteria jokatzeko lokalak dira.

Hertsiki bingo aretoa den horren aldamenean, dela areto horri erantsiriko eraikinetan edo bingo aretorako sarbide direnetan, joko-makinak egon ahalko dira, honako heinean: C motako makina bana hertsiki bingo aretoa deneko 50 postu bakoitzeko.”

Zioak: Gaur egun Nafarroan dauden lau bingo-ek zori-makinak dauzkate bingo aretoetarako sarbide diren geletan. Are gehiago: haietako batean, Bingo Avenida izenekoan, kanpoaldean iragarrita agertzen dira.

Artikuluaren testuak badirudi hori galarazten duela.

17. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

27. artikulua (joko enpresak) aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Foru lege honen ondorioetarako,... joko edo apusturen bat antolatu eta ustiatzeko enpresa jardueretan aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoak.”

Zioak: Arautzen den gauza bakarra joko eta apustuak dira, eta gehitutakoak ez dauka inolako zentzurik.

18. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

31. artikuluko 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1. Jokalariek eskubidea dute begirunezko eta adeitasunezko tratua izateko, jokoaren eta apusturen garapenari buruz behar dituzten argibide guztiak jasotzeko, erkidegoko bi hizkuntzetako edozei-

netan, gaztelaniaz nahiz euskaraz, eta indarpean edo mehatxupean aritu gabe libreki jokatzeko eta jokia garbitasunez eta erregelamenduei jarraikiz egiteko.”

Zioak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubi-deak bermatzea.

19. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluko 2. idatz-zatian honakoa gehitzeko zuzenketa:

2. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak joko aretoetara sartzea debekatzen ahalko die foru lege honen xedapenak hausteagatik zehapena jaso duten pertsoneri eta beren borondatez hala eskatzen dutenei, debeku hori kentzeko libreki eskatzen duten arte, bai eta zuzeneko menpekotasun ekonomikoan dituen ahaideek izendaturiko pertsonari ere, pertsona horrek bere betebeharrak bete ez dituela egiaztatzen denean.”

Zioak: Debekuaren esparrua hedatzea legeak edo epaile- nahiz administrazio-ebazpen batek ezarritako famili betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonengana.

20. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuan, 32. artikuluko 5. idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa.

5. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“5. Los titulares de los establecimientos de juego deberán solicitar autorización al órgano

competente de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra para imponer otras condiciones o prohibiciones de admisión a las salas de juego diferentes de las mencionadas en este artículo.”

Zioak: Testua zuzentzea.

21. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluari beste letra bat gehitzea.

Hau da proposatzen den testua:

“t) Joko-establezimenduetarako ezarritako ordutegi-mugak gainditzea.”

Zioak: Horrelako establezimenduetarako ezarritako ordutegien ez-betetzea zigortzea.

22. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Lehen xedapen iragankorra. Indarreko baimenen balioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako baimenek urtebetez indarra izanen dute; epe hori igaro ondoren, baimena lortzeko eskabidea izapidetu beharko da.”

Zioak: Lege honen indarraldiaren hasiera hurbiltzea baina, horrekin batera, establezimenduei eta abarri behar adinako denbora ematea legearen aginduetara egokitu ahal izan daitezten.

Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duena.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatu ahalko dira:

– 1, 11, 12, 21, 30 eta 42 zenbakiko zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 19, 33, 40 eta 41 zenbakiko zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 3, 5, 6, 18, 31, 34, 35 eta 36 zenbakiko zuzenketa, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 14, 15, 16, 17, 22, 37 eta 39 zenbakiko zuzenketa, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa 2006ko urriaren 10eko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duena

Foru lege proiektu honek aldaketa nabarmenak dakartzkio pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, helburu hauek betetzeko asmoz:

1. Proposatzen den zergen murriztapenari esker zergadunek baliabide gehiago izanen dituzte, eta horrek barne-eskaria sustatuko du hala kontsumoan nola inbertsioetan. Horrenbestez, jarduera handituko da eta lanpostu gehiago sortuko dira. Era berean, “zerga-arraila” txikiagotzen

lagunduko du, hots, enpresa batek langile bati dagokionez bere gain hartzen duen lan-kostu osoaren eta langile horrek jasotzen duen soldata garbiaren arteko aldea. Horrek guztiak hazkunde ekonomikoa ekarriko du eta, horrekin batera, interes-tasak ere igoko dira seguruenik.

Zergadunek eskura duten errentaren hazkundeak norberaren eta familien aurrezkiak ere handituko ditu, bai epe luzerakoak, bai epe laburrerakoak.

2. Zergaren tarifa aldatzea eta norberaren eta familiaren gutxienekoak igotzea. Bi neurri horiek familien egoera hobetzen dute eta, azken lau urteotako inflazioaren eraginez, errenta izendunak igotzearen ondoriozko presio fiskalaren hazkunderen ondorioak saihesteko asmoa dute orobat. Azken finean, “hotzezko gehikortasuna” saihestea da helburu nagusia.

3. Beren inguruabar pertsonalak direla-eta berriazko tratua behar duten gizatalde batzuen zerga-egoera hobetzea, esaterako ezgaitasunak dituztenak, menpekotasuna dutenak, hirugarren adinekoak, familia ugariak, besteren konturako langileak eta alargun-pentsioa jasotzen dutenak.

Berritasun adierazgarri bat nabarmendu beharra dago: Menpekotasun handiko arriskuaren estaldura pribaturako egiten den pizgarria.

4. Zergaren gehikortasunari eutsi eta are indartzea ere, izan ere zergen murriztapena proportzioz handiagoa baita errenta baxuetan errenta altuetan baino.

5. Zerga-bilketako nahikotasunaren printzipioa babestea. Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zerga jarduera ekonomikoa bizkortu eta sustatzeko tresna gisa erabiltzen da, baita karga fiskalaren banaketa bidezkoa egiteko ere, baina aldi berean zerga-bilketako nahikotasuna eta beharrezkoa den diziplina fiskala bermatu behar dira, nafarren ekonomia eta gizarte ongizateari laguntzeko politikei heldu ahal izateko behar adina baliabide edukitze aldera.

Foru lege proiektuak artikulua bakarra du eta bi azken xedapen.

Foru lege proiektu honek ezartzen dituen aldaketa zehatzei dagokienez, menpekotasunen bat duten pertsonak babesteari buruzkoen deskribapena egiten da lehenbizi.

Artikulu bakarraren lehenengo idatz-zatian beste salbuespen kasu bat sartzen da zergari buruzko foru legearen 7. artikuluan. Halatan, salbuetsirik egonen dira zerbitzuari atxikiriko prestazio ekonomiko publikoak, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legetik heldu direnak. Lege hori Gorte Nagusietan tramitatzen ari da.

Salbuetsirik deklaratu dira senide batek zainzteagatik onuradunak hartzen ahalko dituen prestazio ekonomiko publikoak, bai eta onuradunaren asistentzia pertsonalizatuari buruzkoak ere.

Bigarren idatz-zatiaren bidez beste prestazio bat eransten zaio 14. artikuluko 2. idatz-zatiaren a) letran agertzen den zerrendari; horren helburua da laneko errendimenduzat kalifikatzea menpekotasun-aseguruen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, menpekotasunari buruzko araudian xedatzen denarekin bat.

Orobat deklaratu dira salbuetsirik menpekotasun handia duten pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondorioz izaten dituzten ondaregehikuntzak, haien adina kontuan hartu gabe.

Zerga-oinarrian beste murriztapen bat ezarri da: menpekotasun handiko arriskua baizik ez ezarri ez duten aseguru pribatuei ordaintzen zaizkien primak, pentsio-planetan, aseguraturako aurreikuspen-planetan eta aurreikuspen sozialeko mutualitateetan ezartzen diren muga berberekin.

Menpekotasun-aseguru horiek interes bermea eskaini beharko dute nahitaez eta teknika aktuarialak erabili beharko dituzte. Gainera, subjektu pasiboak hartzailea, aseguraturua eta onuraduna izan beharko du.

Foru legearen bosgarren eta seigarren idatz-zatiek zergan ezarrita dauden gutxieneko pertsonal eta familiarrak igotzea dute xede.

Gutxieneko horiek zuzeneko lotura dute subjektu pasiboaren betebeharrak ekonomiko pertsonal eta familiarrekin, izan ere, betebeharrak modulu eta baldintzatzen baitute subjektu pasiboaren errenta. Hori dela eta, errentaren gaineko zergak, zergadunaren benetako ahalmen ekonomikoa kargatzen duenez, benetan eskura dagoen errenta finkatu behar du lehendabizi, hau da, subjektu pasiboaren gutxieneko pertsonal eta familiarrak deskontatu behar ditu errenta osotik.

Erreformaren ondorioz, gutxieneko pertsonal eta familiarrak eguneratu dira, 2003tik aldatu gabe baitzeuden, eta gehiago igo dira ezgaitasunak dituztenen, hirugarren adinekoen eta familien gutxienekoak.

Aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonala ere igo da, guraso bakarreko familietan.

Zazpigarren idatz-zatiak 59. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen du eta zergaren tarifa berria finkatzen du. Gutxieneko tasa 100eko 13koa izanen da, aurrekoa baino puntu bat gutxiago alegia, eta gehienekoa, berriz, 100eko 42koa, aurrekoa baino bi puntu gutxiago alegia.

Tarifak sei tarte ditu (lehen baino bat gutxiago), tasa marjinalak murriztu dira eta tartea handitu. Adierazi beharra dago ezen, tarifa berriaren arabera, murrizpena handiagoa izanen dela tarte baxuetan altuetan baino.

Beste aldaketa nabarmen bat lan kenkariaren araubideari dagokio.

Aldaketa nabarmenena da kenkari orokorra 685 eurotik 700 eurora igotzen dela. Dena dela, igoera handiagoa izanen da 9.100 euroko edo horitik beheitiko laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboentzat, kenkaria 850 eurokoa izanen baita.

9.100,01 eta 10.600 euro bitarteko laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboentzat, berriz, kenkaria progresiboa izanen da: kenkaria 850 eurokoa izanen da, eta horri formula honetatik ateratzen dena kenduko zaio: etekin garbien eta 9.100ren ateko aldea bider 0,1.

Langile aktibo gisa jasotzen dituzten laneko errendimenduak ateratzen dituzten subjektu pasiboaren laneko kenkaria ere igo da, baldin eta 100eko 33tik 100eko 65era bitarteko minusbaliotasuna frogatzen badute, 1.085 eurotik 1.500 eurora igo baita.

Azkenik, hamargarren idatz-zatiaren bidez, beste xedapen gehigarri bat eransten zaio zergari buruzko foru legeari, 2007tik aurrerako ondorioekin. Helburua da 2004tik 2006ra bitartean alargun-pentsioen kenkariak baliatzeko eskubidea izan duten pertsonen inflazioaren eraginaren ordaina ematea. Kenkari hori alargunen dirusarrerak igotzeko egin zen, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren zenbatekoa (IPREM delakoa) berdindu arte. Kontuan hartuz 2004tik 2006ra adierazle horren igoera KPIren igoera baino nabarmen txikiagoa izan dela, PFEZri buruzko foru legeari eransten zaion kenkari osagarriak diferentzia hori berdintzea du helburu.

Kenkaria 426 eurokoa izanen da 2004tik 2006ra bitartean alargun-pentsioen kenkaria egiteko eskubidea izan duten pentsiodunentzat.

Kenkaria egiteko eskubidea 2005. urtean eta 2006. urtean baizik ez badute izan, kenkari osagarria 378 eurokoa izanen da.

Kenkaria egiteko eskubidea 2006. urtean baizik ez badute izan, kenkaria 248 eurokoa izanen da.

Azken xedapenak erregelamenduzko gaikuntzari eta foru lege proiektu honek indarra hartzeari buruzkoak dira.

Artikulu bakarra. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen aldaketa.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen manu ondotik heldu direnek ondoko testua izanen dute:

Bat. 7. artikuluari s) letra gehitu zaio.

“s) Zerbitzuari atxikiriko prestazio ekonomiko publikoak, laguntza familian eta modu pertsonalizatuan jasotzekoak, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legetik heldu direnak.”

Bi. Prestazio bat gehitu da (zazpigarrena) 14. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrako zerrendan.

“7.a. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legean xedatzen denaren arabera, menpekotasun-aseguruen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.”

Hiru. 39. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letra aldatu da.

“b) Hirurogeita bost urtetik goitikoek edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun handikoan dauden pertsonak ohiko etxebizitza eskualdatzen dutenean, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legean xedatzen denaren arabera.”

Lau. (KENDUTA).

Bost. 55. artikulua 3. idatz-zatia aldatu da.

“3. Gutxienerako pertsonalarengatik.

Oro har, gutxienerako pertsona subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 eurokoa izanen da urtean.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a). 900 euro hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 2.000 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b). 2.500 euro subjektu pasibo ezgaituentzat, baldin eta egiaztatzen badute minusbalioetasuna 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 9.000 eurokoa izanen da subjektu pasiboak egiaztatzen badu minusbalioetasuna 100eko 65ekoa edo handiagoa dela.”

Sei. 55. artikulua 4. idatz-zatia aldatu da.

“4. Gutxienerako familiarrarengatik:

1. Hauxe da gutxienerako familia:

a). Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauekiko bat:

– 900 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.000 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b). Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

– 1.650 euro urtean lehenbizikoagatik.

– 1.750 euro urtean bigarrenagatik.

– 2.500 euro urtean hirugarrenagatik.

– 3.350 euro urtean laugarrenagatik.

– 3.800 euro urtean bosgarrenagatik.

– 4.400 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.200 euro urtean. Adopzio kasuetan, Erregistro Zibilean izena ematen den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da murriztapen hori.

c). Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 2.200 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoez gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urteko errentak, salbuetsiak izan ezik, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, ezgaitasunen bat izatea eta duten minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 7.700 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerroaldean aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordez edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

d). Subjektu pasiboak urtean 2.200 euroko murriztapena baliatzeko eskubidea izanen du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ezarritako irizpide eta baremoen arabera pertsona lagundutzat hartzen den ahaide bakoitzeko, baldin eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Murriztapena pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak baliatuko du, edo, horrelakorik ez badu, gradu hurbileneko ahaideak.

Murriztapen hori ezin izanen da baliatu baldin eta lagundutako pertsonaren ahaideren batek pertsona horrengatik idatz-zati honetako c) letran ezarritako gutxieneko familiarraren murriztapena baliatzen badu.

Pertsona lagundua dela justifikatu egin behar da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ekitaldi bakoitzean emandako ziurtagiriaren bidez.

2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduarekin, gutxieneko familiarra gradurik hurbilenekoei

aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko pertsonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batura izanen da.”

Zazpi. 59. artikulua 1. idatz-zatia aldatu da.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria gehienez (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoak)
		3.600	13
3.600	468	4.400	22
8.000	1.436	8.500	25
16.500	3.561	12.500	28
29.000	7.061	14.500	36
43.500	12.281	Gainerakoak	42”

Zortzi. 62. artikulua 5. idatz-zatia aldatu da.

“5. Laneko kenkariak.

1. Laneko errendimenduak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboak: 850 euro.

b) 9.100,01 eta 10.600 euro bitarteko laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboak: 850 euro ken errendimendu garbi horien eta 9.100en arteko diferentzia bider 0,1en emaitza.

c) 10.600 eurotik gorako laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

2. Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65 baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta laneko errendimenduak lortzen dituzten subjektu pasiboen kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den kenkaria 1.500 eurokoa izanen da. Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dutenentzat kenkaria 3.000 eurokoa izanen da.

3. Bosgarren idatz-zati honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu 59. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karga-tasa zergapeturiko laneko errendimendu garbiei aplikatzetik heldu den emaitza.”

Zortzi bis idatz-zati berria. 67. bis artikulua aldatu da.

“67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari gehigarria egiten ahalko dute, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Kenkaria baliatzeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino gehiagoko alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbateko-

aren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zurretik abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.”

Bederatzi. 75. artikuluko 7. araua aldatu da.

“7. 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letran aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonala, zeina 55. artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen baita, 2.400 euro igoko da. Igoera hori ez da gertatuko aita eta ama elkarrekin bizi badira.”

Hamar.(KENDUTA).

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	